# Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

*Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu maiatzaren 21tik 27ra bitarteko asterako*

Astelehena, 2018.eko maiatzak 21

Nafarroako Liburutegiak “Mujeres viajeras” hitzaldia hartuko du, asteartean, María Belmontek emana.

Zineak hauek ekarriko ditu Nafarroako Filmotekara: “Pina”, asteazkenean, “Lesa Humanidad”, ostegunean, eta “El planeta de los simios”, ostiralean.




Nafarroako Filmotekan ostegunean ikusgai izango den “Lesa Humanidad” ikusentzunezkoaren kartela.

Hitzordua musikarekin asteartean izango da, Baluarten, Iruñeko Ganbera Abesbatzaren eskutik.

Prestakuntza “Zeharkako estetikak. Aisialdiko ekosistemak” eta “Komisariotza-ikerketaren inguruko egoitza” izenburuko tailerrek eskainiko dute.

Erakusketei dagokienez, ondokoak daude oraindik ikusgai: “Gamazadarem 125. urteurrena”, “Incurvar”, “Grupo Danok. 1966-1967” eta “En abierto – Zabalik: NUParen 30 urteei buruzko erakusketa”

Bukatzeko, bisita gidatuak antolatu dira "Danok taldea. 1966-1967. Modernitate osatugabea” erakusketara eta katedraleko klaustroko lanetara. Eta aurrera darrai Museoen Zerbitzuak bultzatutako “Pasaportea: Museatu! eta bidaiatu” kanpainak.

Esteka honetan duzu kultur programazio osoa: